



## **“EikenTALENT” Programaren oinarriak**

### **PROGRAMAREN XEDEA**

EIKEN Proiektuen Bankua, EikenTALENT (lehengo EikenBANK), Eiken-Basque Audiovisual & Digital Content-eko (Euskadiko Ikus-entzunezko eta Eduki Digitalen Klusterra) kide diren enpresek diseinatutako ekintza berritzailea da. Horren bidez, langileak ez diren gazte sortzaileen talentua harremanetan jarri nahi da, Euskal ikus-entzunezkoen eta eduki digitalen sektorean diharduten enpresekin. Lankidetzaz horren helburua euskal ikus-entzunezkoen produktu lehiakor berriak sortzea da. Halaber, sortzaileak Euskal Herrian geratzeko saialdia da, eta merkaturako zubia.

EikenTALENT programaren xedea proiektu konkretu batzuk hautatzea eta saritzea da. Era berean, programa honek euskal ekoizpen-etxeen eta sortzaileen arteko lankidetzarako bidea zabalduko du.

### **PARTE-HARTZAILEAK**

- ❑ Sortzaile berriak: programa honetan Euskal Autonomia Erkidegoan errolatutako edo jaiotako pertsonak har dezakete parte, baita atzerriko euskal gizataldeetako kide direnek ere. Pertsona horiek, gainera, unibertsitate ikasketak edo lanbide ikasketak egiten ariko dira eskaera aurkezten dutenean, edo, hobe, ikasketak EikenTALENT deialdi hau baino 3 urte lehenago bukatuak izango dituzte gehienez. Ikus-entzunezko proiektu original bat aurkeztuko dute. Ezin dira aurkeztu sektoreko enpresekin, edukien arloan, modu profesional eta jarraian lanean edo elkarlanean ari diren pertsonak.

Bakarka edo taldeka parte hartu ahal izango da; eta gehienez, 3 lagunek osatutako taldeak onartuko dira. Taldeek arduraduna izendatuko dute, eta bera izango da taldeko ordezkaria programan; beraz, bere erabakiek talde osoan eragingo dute.

Pertsonako, gehienez, 3 proiektu onartuko dira. Proiektu gisa zenbatuko dira pertsona batek bakarka nahiz talde bateko kide gisa aurkezten dituenak.

- ❑ Enpresa parte-hartzaileak. Ekoizpen-etxeak eta *broadcasters*-ak: programan Eiken-Basque Audiovisual & Digital Content-eko kide guztiek izango dute parte hartzeko aukera. Horretarako, Eikeni jakinarazi beharko diote.

## **PROIEKTUEN FORMATUA**

Parte hartzeko aukera izango dute EikenTALENT programaren inprimakian zehaztutakoaren arabera aurkeztutako ikus-entzunezko produktuei buruzko proiektuek eta gidioiek eta maketek edo pilotuek.

## **PARTE-HARTZAILEEN KONPROMISOAK**

### Sortzaile berriak:

- Originaltasunaren konpromisoa: aurkeztutako proiektuak originalak eta norberarenak direla adierazten dute, berariaz eta beren erantzukizunpean.
- EikenTALENTen parte hartzerakoan, programa honen oinarriak onartzen dituztela adierazten dute.

### EikenTALENT eta enpresa parte-hartzaileak:

- Konfidentzialtasun konpromisoa: ez ditu erabiliko programa honen bidez eskuratu ahal izan dituen proiektuak, eta bere esku dauden bitartean, hirugarren batek ezingo ditu proiektuak kopia edo zabaldu.

## **PROIEKTUAK AURKEZTEA**

Proiektuak edizio bakoitzaren ekainaren 1a baino lehen aurkeztuko dira. Proiektu guztiak <http://www.eikencluster.com/eikentalent> (EikenTALENT saila) helbidean aurkeztuko dira.

Proiektu bat baino gehiago aurkeztuz gero, proiektuko inskripzio bana egingo da.

Taldeko proiektuei dagokienez, sortzaileen taldeak kide bat aukeratuko du EikenTALENT programan solaskide izateko.

## **EikenTALENT SARIAK**

### **Prestakuntza beka:**

Aurkeztuko diren proiektuek EikenTALENT Lehiaketan parte hartuko dute. Guzti horien artean, proiektuaren generoa edozein izanda, epaimahaiak hobeto baloratzen dituenak formakuntza beka eskuratuko dituzte. Prestakuntza beka hauek EikenTALENT programan parte hartzen duten enpresa batean edo EIKENen sarean dagoen enpresa edo erakunde kolaboratzaile batean praktikak egitean datza. Bekaren baldintzak eta arauak "EikenTALENT Bekak" programaren oinarrietan ezarriko dira.

Proiektu saritua pertsona batek baino gehiagok aurkeztuz gero, beka irabazleen artean banatzeko aukera aztertuko da; nolana ere, azken erabakia EikenTALENTek hartuko du.

## □ **BBK Saria**

Gainerako sarietara aurkeztutako proiektuez gain, kategoria honetara ere aurkeztu daitezke proiektuak. Pertsona bakoitzak hiru proiektu baino gehiago aurkezten ez duen artean, beti ere.

“Ola BBK zentroa ezagutu” gaia duen bideo onenak BBK Saria irabaziko du, 1.000€ esku dirutan eta Euskal Herrian finkatutako, Ekonomia Sortzailearen Industriarekin zerikusia duten, edukien sorkuntza eta sakabanaketan aritzen den enpresa baten ordaindutako prestakuntza beka hain zuzen.

Proiektuaren gaia da, gazteek Ola BBK zentroa zelan ikusten duten. Zentroa aitzindaria izan da arreta espezializatuan, adimen-desgaitasuna dutenen, haien senideen eta eremu horretan lan egiten gizarte-eragile guztiei Arreta Integrala emateko zentroa da (<https://www.bbk.eus/all-service-list/centro-ola/?lang=centro-ola&lang=eu>). Lanik onenak web korporatiboan izango dira ikusgai, EikenTALENT-en bidez difusio leihoa irekiz honela.

Oinarri hauetan aurreikusitakoa alde batera utzi gabe, kategoria honetan erabat aplikagarria izango dena, kategoria honetan aurkezten diren proiektuak, gainera, honako baldintzen arabera zuzenduko dira partikularki:

1. Hurrengo gaia izango dute proiektuek: “Ola BBK zentroa ezagutu”
2. Proiektuaren gaia da, gazteek zelan ikusten duten aipatutako zentroa.
3. BBKren inguruko informazioa kontsultatzeko edota handitzeko <https://www.bbk.eus/all-service-list/centro-ola/?lang=centro-ola&lang=eu> webgunea bisitatu dezakezu.
4. Edozein teknika erabilia egin daiteke bideoa eta 3 minutuko iraupena izango du gehienez (kredituak barne) eta ezin izango du minutu bateko iraupena baino gutxiago izan.
5. Euskaraz, gazteleraz edo bietan graba daiteke bideoa.
6. Bideoa aurkezteaz gain, beharrezkoa da EikenTALENT-en webean dagoen online parte-hartze formularioa betetzea. Bideoa formularioan bertan dagoen 'artxibo' atalean igo behar da.
7. Kategoria honetan, proiektuak aurkezteko epea ere ekainaren 1ean bukatzen da.
8. Epaimahaiaren iritziz aurkeztutako lanek kalitate nahikoa ez badute saria hutsik gera daiteke.

9. Parte hartzearekin batera, aurkeztutako obraren eta ideia-aren gaineko jabetza intelektual eskubideen legezko titular izatea deklaratu du autoreak bere ardurapean eta oinarri hauen "Aurkeztutako obraren autoretza eta orijinaltasuna" sailean aurreikusitako terminoen aurrean arduraduna izango da bai EikenTALENT-en bai BBK-ren aurrean.
10. Parte hartzearekin batera, debalde eta aldi baterako uzten dizkio autoreak EikenTALENT-i eta BBKri jabetza intelektual eskubide guztiak, bereziki, erreprodukzio, erakuspen, banaketa eta komunikazio publiko eskubideak, lehiaketaren hurrengo edizioaren deialdira arte, edo gutxienez urte baterarte. Isilbidezko adostasunez luzatuko da lagapen hori, autoreak eskubide lagapen klausula hori baliorik gabe uzteko intentzioa EikenTALENT-i fede-emaileki komunikatu arte. Hortaz, denbora horretan zehar, aurkeztutako lanak bere web korporatiboan edota berak aurreikusitako edozein hedabideetan erakusteko eskubidea bere hartzen du BBK-k, autorea/k aipatuta, beti ere.
11. Kategoria honen irabazleen kasuan, eskusiboki, ez denboraren aldetik ez lurraldetasunaren aldetik inongo limitaziorik gabe eta hirugarrenei, eskusiboki edo ez, ustiapen (erreprodukzio, banaketa, komunikazio publiko eta transformazio) eskubide patrimonialen lagapen fakultatea uzten dio BBK-ri saria hartzeak, aurkeztutako proiektu orijinala aldatzeko, transformatzeko, aldatzeko, moldatzeko edota garatzeko berariazko baimenarekin, balizko ondorengo difusioarentzako bideragarritasun teknikoa, artistikoa eta komertziala lortzekotan.
12. Obran adin txikikoak agertuz gero, parte hartzaileak aldeztu aurretik lortu dituzten gurasoen/tutoreen baimena irudiak obran sartzeko.
13. Obrak musika edota pertsona zein entitatearen baten propietatea izateagatik babestutako irudiak balitu, obran erabiltzeko eta EikenTALENT programaren testuinguruan eta helburu propioetan erabiltzeko eskubideak, lizentziak edota baimenak ditu parte hartzaileak.
14. Bizkaian erroldatuta egotea nahitaezko baldintza da saria irabazteko aukera izateko.

#### □ **Epaimahaia:**

EikenTALENT Sarien Epaimahaia programan parte hartzen duten enpresa bakoitzeko ordezkariak eta Eiken-Basque Audiovisual & Digital Content-eko presidentek eta zuzendariak osatuko dute, azkenekoak Epaimahaiaren lehendakariak izango dira eta ez dute bozkatzeko eskubiderik izango.

Balioesteko irizpideak honako hauek izango dira:

- Originaltasuna.
- Merkataritza ahalmena.

Epaimahaiak finalerako aukeratutako proiektuak Epaimahaiaren aurrean defendatuko dira.

Aurkeztutako proiektuek behar adinako kalitatea izan ezean, EikenTALENT programaren antolakuntzak saria hutsik uzteko eskubidea izango du.

Epaimahaiaren erabakiak apelaezinak izango dira.

### **AURKEZTUTAKO OBRAREN ORIGINALTASUNA ETA EGILETZA**

Lehiaketara obrak aurkezten dituzten autoreek obrari eta bere egiletzari dagozkion jabetza intelektualeko eskubide guztiak dituztela aurreuposatzen du EikenTALENT programako antolakuntzak; aurkeztutako obraren gaineko hirugarren baten eskubideen urraketaren aurrean salbuetsita geratzen da EikenTALENT programaren antolakuntza. Hortaz, programan parte hartze soilarekin, parte hartzaileek hurrengoak bermatzen dute euren ardurapean:

- (i) aurkeztutako obrak guztiz argitaragabekoak eta erabat orijinalak direla, eta ez dutela bestelako lehiaketa edo sariketatan saririk jaso.
- (ii) obraren gaineko jabetza intelektualaren legezko eskubide guztiak dituztela eta obrak bere osotasunean EikenTALENT programaren helburuekin edota testuinguruan erabiltzea galarazi, oztopatu edo limitatu dezakeen limitazio legal edo kontraktualik ez daukala.
- (iii) EikenTALENT programan parte hartzeak ez duela hirugarrenen eskubideak urratzen, isilpekotasunik edo bestelakorik, ezta obran agertzen diren pertsonen intimitatea, ohorea eta irudi propio eskubideak ere.

Parte-hartzaile batek edo batzuek aurrekoa betetzen ez dutela jakinez gero, pertsona horiek programatik kanporatuko ditu EikenTALENT programaren antolakuntzak; indarrean dagoen legediak ezar dezakeen bestelako erantzukizunei kalterik egin gabe.

Nolanahi ere, EikenTALENT eta parte hartzen duten gainerako enpresa sustatzaileak ez dira arduradun eta, beraz, erabat libre geratzen dira autoreek/promotoreek oinarri hau hausteagatik gerta daitezkeen erreklamaziotik edo erantzukizunetik, zeintzuk kalterik gabe gordeko dituzten eska litekeen edozein arduraren aurrean.

Proiektuak Jabetza Intelektualaren Erregistroan (Bilbon, Donostian, zein Vitoria-Gasteizen) alta emanda egotea baloratuko du epaimahaiak.

Pertsonen dignitatearen aurka doan, diskriminatorioa den edota orden publikoaren aurkako edukia edo tematika duen obrarik ez da onartuko inongo kasuan.

## **JABETZA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK**

Parte hartzen duten sortzaileek, programan parte hartze hutsagatik, lehiaketara aurkeztutako obraren jabetza intelektualeko eskubideak uzten dizkiote EikenTALENT programari, doan eta aldi baterako. Era berean, programaren esku geratzen dira, baldintza beretan, erreproduzitzeko, erakusteko eta jakinarazpen publikoko eskubideak, Edizio bakoitzari dagokion urteko urriaren 31ra arte. Data horretan, ondorengo oinarrian adierazitako baldintzetan obra jaso ez bada, suntsitu egingo da.

## **PROIEKTU ORIGINALAK JASOTZEA**

Saria jaso ez duten proiektuak Eiken-Basque Audiovisual & Digital Content-en jaso ahal izango dira, dagokion urteko uztailaren 1etik urriaren 31ra arte. EikenTALENTek eta parte hartzen duten enpresek hartutako konfidentzialtasun konpromisoa betetzen dela bermatze aldera, epe horretan jaso ez diren proiektuak suntsitu egingo dira.

## **TALENTUEN POLTSA**

EikenTALENT programan parte hartzen duten sustatzaileak talentuen poltsa batean sartuko dira. Poltsa hori EikenTALENTen parte hartzen duten enpresen eskura geratuko da, sor daitezkeen beharrei erantzuteko, programan parte hartzen dutenen lankidetzaren profesionala izateko edo harremanetan jartzeko, elkarlanean aritzeko ados jartze aldera.

Zentzu horretan, EikenTALENT programaren parte-hartzaileek baimena ematen dute, lehiaketan izena emateko inprimakian aurkakorik adierazten ez badute, beren harremanetarako datuak programan parte hartzen duten enpresen eskura gera daitezzen, aurreko paragrafoan aipatutako helburuekin.

## **FACE TO FACE**

Face to Face saioan parte hartuko duten EikenTALENT programaren parte hartzaileek, bere gain hartzen dute partaidetza hori eta bere erantzukizunpekoa da F2Feko bileretan enpresei emango dien informazioa. Hori dela eta, bilera hauetan edozein formatu edo euskarritan partaideak enpresei borondatez, pertsonalki eta zuzenean emandako informazioak erabilera desegoki edo neurritz kanpokoak edukiko balu, EikenTALENT programak eta bere antolatzaileek inongo erantzukizunik ez dute izango.

## **INFORMAZIO OSAGARRIA ETA BESTE XEDAPEN BATZUK**

Programa honetan parte-hartzeak Oinarri hauek erabat onartzea dakar.

Parte-hartzaileak jakinaren gainean daude EikenTALENT programan parte hartzeko eman dituzten datu pertsonalak Eiken Basque Audiovisual & Digital Content-en titulartasuna duen eta haren ardurapekoa den fitxategi batean sartuko direla, eta EikenTALENT

programa kudeatzeko erabiliko direla, oinarri hauetan adierazitako moduan. Parte-hartzaileek beren datuetara sartzeko, haiek zuzentzeko, baliogabetzeko eta haiei aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango dute, fitxategiaren arduradunaren aurrean.

Oinarrietan aurreikusi ez diren kasuei buruzko erabakiak Eiken-Basque Audiovisual & Digital Content-eko zuzendaritzak eta EikenTALENT programan parte hartzen duten enpresek hartuko dituzte.

Informazio osagarria <http://www.eikencluster.com/eikentalent> helbidean eta EikenTALENT Proiektuaren Idazkaritza Teknikoan eskura dezakezue (Tel: 944 04 82 25, helbide elektronikoa: [eikentalent@eikencluster.com](mailto:eikentalent@eikencluster.com))